

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 2.000 paziente baino gehiago joaten dira urteko Nafarroako Ospitalegunera ahotsen eragiten duten patologiengatik

*70 adituk azken diagnostiko-teknikak eta emakume transgeneroen ahotsaren "feminizazio" prozesuak aztertuko dituzten gaurtik aurrera Iruñean*

Ostirala, 2017.eko azaroak 24

Nafarroako Ospitaleguneko Ahots Unitateak 2.100 paziente inguru tratatzen ditu urtero kontsultan Foru Komunitate osoan eta 400 fonomikrokirurgia edo fonokirurgia ebakuntza egiten ditu, patologiaren batek eragindako ahots-korden egiturak lehengorazten saiatzeko. Ebakuntza kirurgiko horien ondoren errehabilitazio foniatriko-logopedikoa egiten da, ahalik eta funtzionalena den ahotsa lortzeko.



Hizlariak eta ikastaroko antolatzaileak, Uzcanga doktorea (erdian) eta Maraví doktorea (eskuinean).

Otorrinolaringologia, Errehabilitazio (Logopedia eta Foniatria), Psikologia eta Psikiatria arloko 70 aditu bilduko dira gaur eta bihar Iruñean gaitz horiek eta ahotsarekin zerikusia duten beste prozesu batzuk aztertzeko azken teknikak eta protokolo profesionalak aztertzeko, [IV. Ahotsaren Patologiaren Azterketa eta Tratamenduari buruzko Oinarrizko Ikastaroaren](#) barruan. Jardunaldiak María Uzcanga doktoreak, Nafarroako Ospitaleguneko Otorrinolaringologia Zerbitzuko buruak eta Enrique Maraví, Errino-laringe ataleko buruak, sustatu dituzte, azken zortzi urteetan ahotsaren patologiaren inguruko topaketa zientifikoak antolatuta dituztenak.

Ikastaroaren helburua da ahotsaren patologiaren oinarrizko alderdien ezagutzan eta ulermenean sakontzea da. Horretarako, hogeita hamar hitzaldi teoriko eta tailer praktiko inguru egingo dira kasuak aztertzeko eta teknika berrien analisia egiteko, horien artean hiru dimentsiotako irudian oinarritutakoak nabarmentzen dira. Estatu osoko adituek zenbait gairi buruzko txostenak eskainiko dituzte, hala nola laringearen anatomia, ahotsaren fisiologia, lotutako patologien diziplina anitzeko protokoloen garapena, azken aurrerapenak fonokirurgian edo errehabilitazio-prozesuak.

## Ahotsaren "feminizazioa"

Aurten, gainera, emakume transgeneroaren edo hormonetan arazoak dituzten emakumeen ahotsaren "feminizazioa" landuko da zenbait saioetan. Arazo horren ondorioz, nahi dutena baino baxuagoa den tonua izaten dute.

Alderdi kirurgiko eta logopedikoak aztertuko dira, trantsizio prozesu honetan beharrezkoak direnak, alderdi psikologikoak bezala. Ebakuntza hori oso garrantzitsutzat jotzen da ahotsak generoari dagokionez esperotakoa asetzen ez duen pertsonengan, izan ere, "ezinbesteko parametro baten arazo" bat gisa hartzen dute, eta gizarte-, lan- edo familia-ingurunera egokitzeko zailtasunak eragiten dituzte.

Ikastaroan Juan Carlos Casado eta Enrique Maraví doktoreen 'Feminización de la voz' liburua aurkeztuko da, emakume transgeneroa diziplina anitzetik aztertzen duena. Casado doktorea, Marbellako Quirón Ospitaleko Otorrinolaringologia Zerbitzuko burua da eta ahotsaren "feminizazioaren" esparruan munduko aditu nagusietako bat da. Enrique Maraví doktoreak 15 urte daramatza lanean Nafarroako Ospitalegunean errino-laringeko aditu gisa, eta zentro honetan kondroplastia (gorgoila txikiagotzea) eta glotoplastia (ahots-korden luzera txikiagotzea ahotsaren tonua handitzeko) teknikak ezartzearen arduraduna da.

Ikastaroak Otorrinolaringologiako telefono mugikorrerako aplikaziorik interesgarrienak aztertuko ditu, bai profesionalentzat, bai herritarrentzat direnak, ahotsaren higienarako aholkuekin eta alarma zantzuak antzemateko jarraibideekin. Horrez gain, Sofia Esparza sopranoak eta Michel Reynoso pianistak ere parte hartuko dute-

Ahotsaren patologia garrantzia hartu du gero eta errazagoak diren teknologien garapenari esker, izan ere, eragindako pertsonak aztertzen, diagnostikoa egiten eta tratatzen laguntzen dute. Baliabide erabilgarrien artean nabarmentzen dira ahotsaren pertzepziozko analisia, analisi akustikoa eta aerodinamikoa, azterketa estroboskopikoa, ahotsaren ebaluazio subjektiboa (Voice Handicap Index) eta ebaluazio ortofoniko-foniatrikoa, ikastaroaren edukien artena daudenak.

## Otorrinolaringologia taldea

Nafarroako Ospitaleguneko Ahots Unitatea 2009an abian jarri zen eta 12 profesionalak osatzen dute. Diziplina anitzeko talde bat da, eta Otorrinolaringologia Zerbitzuaren (8 mediku) eta Errehabilitazio Zerbitzuaren (2 mediku eta 2 logopeda) laguntza du.

Otorrinolaringologia Zerbitzuaren azken nobedadeen artean nabarmentzen dira [hipoakusia \(gorreria\) duten helduentzako kokleako implanteak eta eskatzen duten errehabilitazio logopedikoa](#), B Nafarroako Ospitaleguneko Otologia Atalean egiten dena.

Halaber, 2017an, loaldi induzitutako endoskopia egiten hasi dira loaldiko apnea duten pazienteengan diagnostiko topografikoa egiteko. Horrez gain, disfagia estrukturalako diziplina anitzeko kontsulta egiten ere hasi da, laringeko kartzinomaren tratamendu onkologikoen ondorioa dena, eta Errehabilitazio eta Aurpegi-masailetakoa Kirurgia zerbitzuekin elkarlanean hasi da, ezpaineako fisura (erbi-ezpaina eta ahosabaiko fisura) duten neska-mutilekin lan egiteko.



Hiru dimentsioko bideo-erakustaldia.